

trico para el servicio público. Este, ya de por sí anticuado, por ser una red de tendido aéreo, aparte de ser feo, se encuentra en muy malas condiciones de conservación en la mayoría de nuestras calles, y si bien antes, ante el gran peligro constante de inundaciones, exigía tenerlo en tal instalación aérea, hoy en día, desaparecido este peligro, podría mejorarse, canalizando en el suelo con un nuevo tendido de buenos materiales.

En Rentería hace falta luz, hay muchas calles y sitios prácticamente oscuros. Una de las mayores preocupaciones e inquietudes de esta Comisión es la iluminación de la Alameda de Gamón, donde el alumbrado público, escaso y pobre, sobre todo en los días festivos y durante los bailables, hace el lugar propicio al escándalo e inmoralidad; y aquí es donde primero encaminamos nuestros deseos de buscar la mejor solución, dotando a esta Alameda de un alumbrado adecuado, ello, naturalmente, dentro de nuestros recursos económicos.

Por otro lado, sería un gran alivio y ayuda si los comerciantes e industriales, con sus escaparates y anuncios luminosos, coadyuvasen a esa luz necesaria, manteniéndolos encendidos algo de tiempo durante las noches de los días festivos. Esto creo que, aparte de ser beneficioso a sus negocios, daría mayor vistosidad a las calles más concurridas del pueblo.

Como el mejoramiento de nuestro alumbrado público va acompañado de un enorme gasto, sólo se puede hacer lo más necesario por el momento, pensando que el Municipio se enfrenta con otros problemas más graves y de carácter más urgente, como el abastecimiento de aguas, nuevo cementerio, y grupos escolares, tan necesarios en esta villa, donde nos estamos poco a poco quedando atrás.

Una vez atendidas tales urgentes necesidades es nuestro propósito la mejora total del alumbrado público, poniendo a Rentería a la altura de los pueblos mejor iluminados.

Euskaltzalehen arteko goraberak

OARSO'ren deiari erantzunaz, ona emen idazle gazte bat gurekin: ARREGI'tar Ricardo. Gure artean berria izan arren, eusko idazle bezela oso ezaguna. Bera degu, ZERUKO ARGIA'ren alde sutsu jokatzan ari dana, eta aldizkari ortan azaltzen dira gazte onen lan mamitsu eta sakonak. Orrelako askorekin noraño jasoko genduke gure izkuntz ederra?

OARSO'k, ongi-etorri beroenarekin, eta bere esker-ona agertuaz, pozik argitaratzen du ARREGI'tar Ricardo'k idatzia.

Zerbait idazteko esan didate. Baiezkoa eman det, eta gogo onez gaiñera. Baiñan idazten asi baiño lehen, galdetu diot nere buruari bai detan esatekorik ezer. Bear bearrezkoak ez izan arren, eta garrantzi txikikoak izanda ere, zerbait esan dezaketela irudititu zait.

Urtebete ta geiago badaramakit, astero astero, alderdi ontako euskaldun astekari bakarrean zerbait ezagutzen ditutela esan dezaket. Gorabera oietzaz zerbait esan nai nuke, ta baita euskaldun idazle gazte bati zer prolemak azaltzen zaizkion ere.

Astero, nik idatzitako zerbait argitaratzen da. Lenen konturatzen naizena da idazten ditutenak ez dirala oso ondo idatziak egoten; ez euskeraren aldetik, ez, ideien aldetik baizik. Orregatik, ara lenengo galdera ta lenengo prolema: zerbait egiten det, baiñan gaizki. Zer da ohea, gaizki egitea edo ez egitea? Badakit norbaitek erantzungo ditena: onena ondo egitea da. Baiñan ortarako betarik ez baldin badegu? Nere ustean, gaizki egiten baldin bada ere ohea da gaizki egitea ezertxore ez egitea baiño. Izan ere, gaur egunean euskaldunok dauzkagun prolemak, egiñaz bakarrik konpondu ditzazkegu. Gure literaturaren goraber ta prolemak ez dira erabakiko onela edo bestela egin bear dirala esanaz baizik, eta idazleak, irakurleak eta liburuak ugarituaz. Jakina, egitekotan ohea da ondo egitea; baiñan ala ere, ez du iñork eduki bear bildurrik euskeraz idazteko gaizki egingo duala pentsatuaz. Egiñak berak erakutziko digu zeñ izan bear duan biderik egokiena; zeintsuek diran idazlerik onenak; zeñ dan euskalki egokiena, euskera batuko duan euskalkia. Gauz geienetan bezela, askotaz ere, ohea da behetik gora ibiltzea, goitik behera baiño. Indukzioa ohea da dedukzioa baiño.

Orretzaz gaiñera, gaur idazle gazte batek, batez ere ikaslea edo estudiantea baldin bada, ea ohea ez ote litzaken ikasi, ta gerorako ondo prestatutzea, oraiñ

idazten ta euskal kontuetan denbora galtzen ibiltzea baiño, galdetu bear dio bere buruari. Gaur bat, euskaltzalehen tartetan sartzen baldin bada, eten gabe sortuko zaizkio lanak, eginbearrak; ta gaiñera egin bear guzti oiek bear bearrezkoak irudituko zaizkio. Batek konturik edukitzen ez baldin badu, pixkanaka pixkanaka bere ikasketak alde batera uzten asiko da. Orduan, zer egin bear du? Ikasketari bakarrik eutsi ta gaiñontzekoak alde batera utzi? Bai, badakit, neurri bat billatu bear da; baiñan saltza auetan dabillenak badaki zenbat kostatzen dan neurri ori billatzen, betetzen.

Euskerazko prolemaren gañean zerbait dakitenak badakite, gutxi gora bera, zer egin bear dan eta zer bidek jarraitu bear diran prolema ori askatzeko. Baiñan zoritxarrez, konturatu naizenez, asko dira "onela edo bestela egin bear da" esaten dutenak, eta oso gutxi dira benetan lan egiten dutenak. Eta orixe da arrabirik aundiena ematen duana. Planifikadoreak millaka ditugu, baiñan egilleak oso gutxi.

Amaseigarren gizaldian, euskal idazle batek bertotan esaten zion euskerari plazara atera bear zuala. Euskerak, bizitzeko, bear bearrezkoa du, ori, plazara ateratzea. Baiñan oraindik etxe barruan sartua daukagu. Gure artean itxita gaude. Ateratzen dan guztia, idazten dan guztia, beti irakurle berdiñen eskuetan eroritzen da. Eta neronek pentsatuta ere badaukat, askotan geuren burua ez ote degun engañatzen esanaz, alegia, oraiñ lenago baiño liburu geiago argitaratzen dirala euskeraz. Baditeke, baiñan askotaz ere ohea genduke jakitea lenago irakurle geiago baditugula.

Certa diteke emen azaldu ditudan erru oietatik, nerorni ere libre ez egotea. Baita ere gerta diteke nere jokabidea auste: au da, euskeraren gañean ez idaztea baizik, eta euskeraz idaztea. Ori egin baldin badet, barkazioa eskatzen dizutet guztiori.